

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Jendetza, Realaren alde, Sevillan eta hemen

Kopako finalak jendetza mugiarazi zuen Sevillara. Era berean, inguruotan gogotik ospatu zen garaipena / 2-4

AIURRI

Santakruzak, gertu

Protokolo transfeminista sustatu duen Andoaingo Mugimendu Feministari elkarrizketa / 8-9

Udako aisialdirako proposamena aurkeztu dute Andoaingo eta Urrietako Udalek / 10

Berria erremonete txapelketako finala, larunbat honetan, Galarreta pilotalekuan / 13

UDAKO ZERBITZUAK 2026 URNIETA

Eguzkitan blai!
Kirol Udalekuak
Zaintza zerbitzua 2023an jaiotakoentzat

**Izena ematea:
Apirilaren 20tik 30era**

T. 943 00 80 00
T. 943 00 80 33
udalekuak@urnieta.eus
www.urnieta.eus/udalekuak



Lagun kuadrilla ugari elkartu zen Goikoplazan, larunbatean. AIURRI



Andoaindarrak, urnietarrak... eta, tartean, Xanti Bakero Realeko jokalaria ohia. AIURRI



Jon Gaztañaga Realeko jokalaria ohia eta herrikideak, zaletuen gunean. AIURRI

Gozatu ederra hartu zuten Sevillan eta bi udalerrietan

Emozioz bizi izan zen finala Sevillan eta inguruotan. Bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten hainbat zaletuk baina bertan geratu zirenek ere gogotik ospatu zuten garaipena. Egun gogoangarria izan zen larunbatekoa, Errealzaleentzat



Euskaldunako jokalaria eta lagunak, Sevilla hirian. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Asteburuan Sevillako irudiak eta bideoak eskegi ziren Aiurri.eus gunean eta sare sozialetan. Esan gabe doa haien guztien zabalkundea handia izan zela. Errealarekiko atxikimendua oso handia da eta, ondorioz, partidaren aurreko orduak ilusioz igaro ziren. Sevillan zirenek ez dute bizitakoa berehalakoan ahaztuko. Baina bertan geratu zirenek ere, aldi berean, gozatu, sufritu eta garaipenarekin ospatu zuten.



Andoaindar taldea La Cartuja futbol zelaian. AIURRI



Argazki gehiago ikusgai daude Aiurri.eus webgunean. AIURRI



Gora: Jendetza

Inauterietako larunbat gauean eta San Juan jaietako hainbat hitzorduetan Goikoplazan elkartu ohi da jendetza. Udaletxetik frontoirako tartea luzea da eta larunbatean ehunka lagun elkartu ziren pantaila erraldoiaren aurrean. Andoingo kaleetan Udalak antolatutako hitzorduetara herrikide ugari hurbildu zen: jendartean ospatzeko gogoaren seinale.



AIURRI

Behera: Zikinkeria

Oso erraza da ulertzen: plazara eramandakoa dagokion tokira itzuli. Garagardoa tabernan erosi zenuen? Hara itzuli. Etxetik edo beste tokiren batetik eramán zenuen plazara? Dagokion edukiontzira bota. Eta gauza bera poltsekin, bokadillo zatiekin edo estalkiekin. Ospakizunarekin bat egitea eta jokabide txukuna izatea bateragarria da.



AIURRI



Andoni Alvarez eta Jorge Segurado, Sevillako zaletuen gunean. AIURRI

Bi alkateak, Sevillan

Real Sociedad taldeak Gipuzkoako alkateak gonbidatu zituen finala ikustera eta deialdiari erantzun zioten gehienek. Tartean, Andoingo eta Urrietakoa. Biak ere errealzaleak, gainerako herrikideen pare animatzen aritu ziren finalean. Aiurri astekariak eskatuta, argazkia atera zuten elkarrekin. Finalaren egunekoak da argazkia, goizean zaletuen gunean egindakoa. Egun handiaren hasiera.

Ongizatearen Plaza *Hernani*

apirilak 29-30, Urbieta kalea

Ongizatea ondo bizitzea da. Zu, zure familia eta zure komunitatea ondo egotea eta ondo sentitzea.

Pertsonen ongizatean eragiten duten faktoreetan sakontzeko, adin tarte guztientzako tailerrak, talde dinamikak, hitzaldiak eta solasak antolatu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Zatoz eta parte hartu.



Égitarau osoa:
plaza.gipuzkoa.eus

ASTEAZKENA - APIRILAK 29

10:00-11:30

osasuntsu zahartu

Adierem telebista programako kirol saio irekia, estimulazio kognitiboko tailerra, eta mindfulness terapia.

11:30-13:00

elikadura jasangarria

Jakoba Errekonde agroekologian adituarekin, eta Hernaniko basenitar profesionalekin solasean.

16:00-17:00

plaza podcast irratsaioa

Naiberaren gorputzaren jabe izatearen begirada desberdinak. Plaza Podcast irratsaioa zuzenean.

17:30-18:30

inklusioa ongizate bihurtzen denean

Nola hobetu desgaitasunagatik bazterkeria arriskuan dauden herritarren ongizatea?

18:30-19:30

elkar ezagutza eta integrazioa

Nola bizi dute etorkinek herri ezeguzun batean integratzeko prozesua? Eta, nola jasaten ditugu herritar berriak?

OSTEGUNA - APIRILAK 30

10:00-11:30

guzteen ongizate

Sare-sozialeko adikzioa; gaitasun sozialen gailera; suitzioaren haultza... hiperkonektatzearen eraginak diet soilik?

11:30-13:00

nahi ez den bakardadea

Aukerazten ez den bakardadea gerturatuz. Hiru istorio erreal eta gordinen dokumentalak, eta protagonisten solasa.

18:00-19:00

teknodiktzioak

Mugikaren eta teknologia digitalen erabilera arduratsua bultzatzeko saio dinamikoa Albia Burua elkartearekin.

19:00-19:30

kantu jira

Kantu Jira saio berezia eta ondoren pintxo potoea.

GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.



Bakartxo Portuburu izan da porraren irabazlea. Alboan du Danel semea eta, nola ez, sariak eta sari-emaileak. Hots, tarta txuri-urdiña eta baloia Arruti Gozotegiaren eta Ormendi Kirolakaren eskutik. AIURRI

Aiurrik antolatutako porraren irabazlea

Finalaren irabazlea eta partidaren amaierako emaitza asmatu beharra zegoen. Jokoan, sari bikoitza: Arrutiko tarta txuri-urdiña eta Ormendin ikusgai zegoen Realaren baloia. 484 lagunaren artean 14k asmatu zuten eta, zozketan, Bakartxo Portuburu izan zen irabazlea

Erredakzioa ANDOAIN

Espero baino askoz interes handiagoa pizten zuen Kopako finalaren baitan antolatutako porrak. Aiurrik sustatuta, eta Arruti gozotegiaren eta Ormendi Kirolak-en babesarekin, 484 lagunek parte hartu zuten. Argi geratu zen, aurreko egunetan, finaleko protagonista eta sariak erakargarriak zirela.

Partaidetzari erreparatuta, oihartzuna eskualde osora iritsi dela bistakoa da. Gazte eta heldu, adin guztietako partaidetza lortu zen. Eskerrik asko parte hartu zenuten guztioi!

Porran gehien errepikatu zen emaitza 1-2koa izan zen. 142 aldiz, zehazki. Beste emaitza batzuk ere hainbat bider errepikatu dira: 2-3, 0-1, 1-3,...

2-2koa izan zen, azkenerako, partidaren amaierako emaitza. Eta, jakina denez, Realak irabazi zuen kopa. 484 lagunetatik guztietatik, partidaren irabazlea eta emaitza zehatza asmatu zutenak 14 izan ziren. Azkenerako haien artean zozketa egin eta irabazlea Bakartxo Portuburu andoainarra izan zen. Pozarren jaso zuen saria.



Aurpegi-margoketa eta txapa tailerra, Zumea plazan. AIURRI

Realaren aldeko ekimenak, arratsaldean hasita

Zumea plazan hurrei zuzendutako jarduerak antolatu zituzten. Goikoplazan, iluntzean, finalaren emankizuna

Erredakzioa ANDOAIN

Larunbat arratsaldean, txuri-urdinez jantzitako haurrak gehiengo nagusi ziren. Eta ez ziren gutxi turutat, Ikurriña edota Realaren bandera haizatzen zebiltzanak. Finala hasteko lau orduren faltan, Zumea plazan, haur jolasak, aurpegi-margoketa eta txapak egiteko tailerra anto-

latu zituzten Gazte Lokaleko eta Ludotekako kideek. Salkinek eta Andoingo Udalak elkarrekin antolatutako ekitaldi-sortako lehena izan zen. Arratsaldean hasita, antzematen zen jendetza zebilela kalean. Gauean, partida hasita, hainbat tokitan baina, bereziki, Goikoplazan elkartu ziren zaletu gehienak.



Zaletuak, Zumea plazan, larunbat arratsaldean. AIURRI

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

**Eskerrik asko
Kopako finalaren
porrako partaide guztiei**

484 lagunek parte hartu zuten, denera
IRABAZLEA: BAKARTXO PORTUBURU

Antolatzailea:

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Babesleak:

ORMENDI
KIROLAK

ARRUTI



andoa**INDARRA**
euskaraz

w w w . a i u r r i . e u s

IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Beste GU

Kopako finalaren dimentsioa aurrikusten asmatu zuen Andoaingo Udalak, hurrei begirako tailerrak antolatuz eta pantaila erraldoia jarritz. Arratsaldean hasita, jendetza zebilen herriko kaleetan. Gauean biziko zen ospakizun kolektiboaren iragarpena izan zen hura. Partidaren hasiera-ordua hurbildu ahala, ehunka lagun elkartzen hasi zen pantaila erraldoiaren parean. Aurrealdean, nagusiki, haurrak eta gaztetxoak. Atzealdean, lagunarteak eta familiak.

Aritu nintzen, Goikoplazan, batera eta bestera begira: askotariko jatorria zuten herrikideak ikusi nituen plazaren erdian, elizarantz doazen eskilaratan eta inguruko beste eremuetan. Ez zait burura etortzen hain bizimodu ezberdinak daramaten herrikideak batu ditzakeen beste hitzordurik. Eta han ziren guztiak sufritzen, urduritzen eta, azkenik, gozaten eta pozez zorutzen. Ikuspegi sozialetik, komunitatea egiteko mugarria izan zen larunbatekoa. "GUazen Errealak!" izan da klubaren lelo nagusia, gu horren baitan norbanako asko eta ezberdinak batu daitezkeela aintzat hartuta. Beste gu horiek ere bertan direla, alegia. Inklusioaren eta aniztasunaren ikuspegitik, ez bairik gabe, erabaki ona izan zen pantaila jartzea. Errealak Kopa irabazi zuen eta, Goikoplazan ginonok, hein handi batean, komunitatea egin genuen.



Zaletu taldea Goikoplazan, partidari hasiera eman aurretik. AIURRI

KOMUNITATEA

EGAPE IKASTOLA URNIETA

Eztabaidatzen ikasten

DBH 3. mailako ikasleek, Euskara eta Geografia eta Historia jakintzagaitan, arloartekotasunean, modu egokian eztabaidatzen ikasteko ikas-egoera egin dute.

Ikas-egoera honen bidez, ikasleek jakintzagai hauetako hainbat konpetentzia garatzeko aukera izan dute; izan ere, ikasleek beraien pentsamenduak era antolatuan nola adierazi ikasi, eta era berean, besteei entzuten, ikuspegi berriak hartzen eta bizitzan agertzen diren egoera edo gatazken aurrean irtenbide adostuak hartzen ikasi dute.

Hasteko, ikasleek, bakarka, hainbat eztabaidagai proposatu dituzte, etxean egin ohi diren lanak eskolan erakutsi behar ote diren, eskoletan futbol zelaiek espazio gutxiago hartu behar



EGAPE

ote dituzten, mugikorren erabilera besteak beste. Denak interesgarriak izan diren arren, gehien interesatzen zaizkienak aukeratu behar izan dituzte: gela bakoitzeko bi. Horietako

bakoitzaren inguruan galderak pentsatu eta formulatu dituzte, ondoren, horiek, gida-lerro moduan erabiltzeko.

Eztabaidarako argudio prestaketa egin aurretik, argudio mota desberdinak, rolak, arauak eta adierazpena (jarrera, keinuak, ahots-tonua...) landu dituzte. Ondoren, gaiaren inguruko ikuspegi desberdinen argudio sendoak eraikitzeke lana burutu dute lankidetzan.

Entsaiak egin ondoren, Lekaion, kideekin eztabaida gauzatu dute, abantailak eta desabantailak mahai gainean jarri eta ikuspegi kontrajarriak entzunez eta partekatuz. DBH 2. mailako ikasleek eztabaida bertatik bertara jarraitu dute berdinetik berdinerako ikasketa prozesua aberatsa baita.

Egaperen eraikin berria

Egapeko DBHko eraikin berria martxan jartzeko lanei berrekin diete, aste honetan. Urnietako Udalak emandako datuen arabera, eraikuntza-lanak 2025eko uztailan hasi ziren baina, irailean, eten egin behar izan zituzten arrazoi teknikoak argudiatuta. Antza, lurraren erresistentzian zegoen arazoaren muina.



UDALA



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lidie Ruiz Telleria.

Maketzaileak: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietak).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berdintasunerako ZuzendaritzaEUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.





Lebiton konpartsa, 2025eko Santa Krutz jaietan. Aurten pregoia euren ardurapekoa izango da. AIURRI

Aurtengo Santakrutzen atzera kontaketa hasi da

Egitaraua trinkoa izango da, halaberrez, ostegunean hasi eta igandean amaituko baitira jaiak. Lau egunetan hitzorduak kateatuko dira, bata bestearen atzetik. Adibide adierazgarria: sagardo dastaketa, talo-jatea eta pintxo lehiaketa igande arratsaldean dira

Erredakzioa ANDOAIN

Egunotan banatzen ari da Jai Batzordea 2026ko egitaraua. 3 gau eta 4 egun dira, guztira. Eta, tartean, tradizio handiko ekitaldi ugari. Batzuk, aipatzearen: txistularien emanaldi berezia, erreka jaitzira, bazkari herrikoa, Kuadrillen Eguna, bakailao txapelketa, txakoli dastaketa... egitaraua egun gutxitan pilatzearen ondorioz hitzordu ugari kateatuko dira. Hitz gutxitara ekarrita, jaiegunak honela laburbildu daitezke: ostegunean, jaien hasiera; ostiralean, krosa eta kirol jarduerak; larunbatean, Kuadrillen Eguna eta, igande arratsaldean, jana eta edana -hots, sagardoa, taloa eta pintxoak-.

Txupinazioa

Festazaleen urteko hitzordu gorenetakoa iristear da. Lebiton konpartsak hartuko du protagonismoa, eurak baitira jaiari hasiera emango diotenak. Hoieitamargarren urteurrenean murgildu dira eta ondo merezita dute Jai Batzordeak egin dien aitorza.



Sagardo dastaketa eta talo-jatea igande arratsaldean izango da. AIURRI



Pintxo lehiaketa igandean izango da, 19:00tan hasita. Argazkia 2024koa da, Hiru jaietxeak lehiaketa irabazi zueneko. AIURRI



Olagain Txistulari Elkartearen kontzertua, artxiboko irudian. AIURRI

Olagain Txistulari Elkartearen kontzertua, jaien hasieran

Amaia Oreja, Kristina Solano eta Ane Telletxea, aurtengo gonbidatuen artean, apirilaren 30eko kontzertuan

Erredakzioa ANDOAIN

"Musikaz gozatzeko, jai giroan elkartzeko eta gure txistu doinuekin emozionatzeko aukera ederra izango da". Hitz horiekin iragarri dute emanaldia Andoaingo Olagain Txistulari Elkartearen kideek. Emanaldia apirilaren 30ean izango da, osteguna, iluntzeko 20:00tan hasita Santa Krutz elizan. Aurtengo jaietako lehengo ekitaldietakoa izango da eta, ohi bezala, lagun berriez inguratuko dira. Honatx, aurtengoan, txistulariekin batera ariko diren musikariak: "Gure ohiko errepertorioa partekatzeaz gain, lagun bereziak izango ditugu gurekin oholtza partekatzen, besteak beste, Amaia Oreja eta Kristina Solano, eta Andoaingo musika eskolako txistu-irakasle den Ane Telletxea".

Aurkezpenak eta iragarpenak eginda, gonbita luzatuta dago. Txistulariek musikazaleekin eta

festazaleekin partekatu nahi dute emanaldia: "Zatoz gurekin une berezi hau bizitzera! Zatoz eta partekatu musika gurekin!".

Errepertorioa

Plentzia, 1. Kontrapasa, Ametsa, Don Martin, Baltza eta Pasodoblea, Cunningham collection, Euskera, Oi euskera eta behin betiko, Mando baten gainean, Behin batean Loiolan, Beldurra ahaztua, Erabil nazazu eta 104 ilargi bete.

Parte-hartzaileak

Amaia Oreja eta Kristina Solano, Ane Telletxea, Alberto Agirre abesbatza, Javi Gestoso, Txomin Urdanpilleta, Esti Sistiaga, Andoni Gonzalez, Jaime Eguzkitza, Edorta Setien eta Olagain Udaltxistulari Elkartearen. Guztiak, Jon Ander Belamendiaren zuzendaritzapean. Aurkezlea, Ainhoa Aiertza izango da.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

**Santakrutzak 26:
Atal berezia,
webgunean**

Albisteak, egitaraua, argazkiak, bideoak...
JAIAREN GERTUKO JARRAIPENA

www.aiurri.eus



SANTA KRUTZ JAIK EGITARAUA



Txupinazoa Lebiton erraldoi eta buruhandien konpartsaren eskutik izango da aurten. AIURRI

Santa Krutz Jai Batzordeak egitaraua banatuko du auzoan, asteburu honetan. Honatx, aurtengo egitaraua. Aldaketarik izanez gero, datorren asteko gehigarri berezian argitara emango ditugu.

APIRILAK 30

OSTEGUNA

16:00 Haur pregoia eta txokolatada Zumea plazan.

17:00 Judo eta karate erakustaldia Zumea plazan.

18:30 Lebiton erraldoi eta buruhandien konpartsa Plaza Moretik eta Gora Kaletxiki txaranga Zumea plazatik.

18:30 Zumeatarra elkartearen danborrada Zumeatarra elkartetik abiatuta.

19:00 Txupinazoa Lebiton erraldoi eta buruhandien konpartsaren eskutik.

19:30 Txosnen irekiera.

19:30 Harri-jasotze popularra Bekoplazan, "V. Santakruz harri txikia".

20:00 Olagain txistularien elkartearen kontzertua Santa Krutz ermitan.

21:00 Santakruzetako II. Futbito txapelketa Ondarreta Herri Eskolako patioan.

23:00-04:30 Txilipipar rock, Lukiek punk-rock eta 3ttu erromeria.

MAIATZAK 1

OSTIRALA

07:00 Gaupaseroen txaranga.

08:00 Gaupaseroen argazkia Kaimuturrean.

10:30 XLVI. Kros herrikoia: XV. Bixente Huiziren omenez.

11:30 Haur krosa.

12:00 Txalaparta Kaimuturrean eta kantu kalejira Plaza Moretik abiatuta.

12:00 Txirindularitzako XLVII. Santa Krutz saria Kale Berria eta Guipuzcoanoren artean.

12:00 Bertso-poteoa Kale Nagusitik.

14:00 Auzo bazkaria Kale Nagusian (euria eginez gero, Zumea plazan).

16:30 Kontzertua.

17:30 Erreka jaitsiera Santa Krutz zubian. Etxarritik abiatuko dira 16:15etan.

18:00 Bakailao txapelketa, Iruberrin.

18:30 Bizikleta festa, Kale Berrian.

18:30 Herri danborrada, Bekoplazatik.

19:00 Matraka elektrotxaranga Bekoplazan.

21:45 Zezen-suzkoa, Maindi iturritik hasita.

20:00-04:30 F.A.M.E tekno, Hazas elektrolatino-mambo eta Ostarte erromeria.

MAIATZAK 2

LARUNBATA

10:30 Musika Eskolako akordeoien kalejira Juanita Alkain plazatik hasita.

10:30 Eneko Martiarenaren oroimenezko V. Xake txapelketa, Juanita Alkain plazan (<=14 urte).

11:00 Joxe Ramon Ansaren aldeko oroimen ekitaldia: "Ez gaude ahaztuta", Kaimuturrean.

11:30 Kuadrillen arteko jokoak, txaranga lagunduta, Bekoplazatik.

11:45 Urki Dantza Taldearen emanaldia, Zumea plazan.

12:00 Puzgarriak Zumean. Euria eginez gero, Ondarreta Herri Eskolako jolastoki estalian.

12:00 Bermut musikatua Ezekiel DJarekin, Kaimuturrean. Euriarekin, Bekoplazan.

14:00 Kuadrillen eguneko ate-irekiera eta bazkaria Bekoplazan. Euria eginez gero, Zumea plazan.

17:30 Kuadrillen eguneko DJ ibiltaria Bekoplazatik abiatuta.

17:00 Txotxongilo ikuskizuna, Santa Krutz ermitan.

18:30 Euskal Herriko garagardoak Iker Etxebesteren eskutik. 'Karom' eta Iruzta taldea, Zumea plazan.

20:00 Malkogarriyak taldearen kontzertua Bekoplazan.

22:30 Peña Santa Krutz elkartearen danborrada, elkartetik abiatuta.

23:00-04:30 Muxutruk taldearen erromeria.

MAIATZAK 3

IGANDEA

10:00 Dultzaineroak, Juanita Alkain plazan.

10:30 Artisau azoka eta umeentzako tailerrak (15:00), Maindi iturriaren inguruan. Euria eginez gero, Zumea plazan.

10:30 Banderaren jaitsiera. Udal korporazioak, eskopeteroek eta txistulariek lagunduta.

10:30 Banderaren arboltzea eta Ezpata Dantza, Santa Krutz zubian.

11:00 Meza santua Alberto Agirre abesbatzak kantatua. Eskopeteroen saioa.

11:30 Ezpata dantza eta Brokel dantza, zubian.

12:00 Txakolin dastaketa Kaimuturrean. Euria eginez gero, Bekoplazan.

12:00 Andoaingo trikitilarien kalejira, Kale Nagusitik.

13:00 Andoaingo Udal Musika Eskolako Bandaren kontzertua, Kale Nagusian. Euria eginez gero, Ondarreta Herri Eskolako jolastoki estalian.

17:00 XLV. Sagardo txapelketa eta Basataloak Andoaingo talogileak, Zumea plazan.

17:00 Haurrentzako baserriko kirol parkea Kaimuturrean. Euria eginez gero, Ondarreta Herri Eskolako jolastoki estalian.

19:00 Plaza dantzak, Kale Nagusitik abiatuta.

19:00 Taberna arteko pintxo txapelketa.

21:15 Zezen suzkoa, Maindi iturriaren paretik hasita.

21:30 Danborrada popularra. Jaien amaierako ekitaldia.

Egitaraua eta Santa Krutz jaien inguruko informazioa Aiurri.eus gunean, atal berezian.



Lide Ruiz Telleria ANDOAIN

Gozatzeko egunak datoz, baina zoritxarrez gatazka iturri izan daitezke jaiak. Eraso matxistei aurre egiteko protokoloa lantzen ari zarete. Aurtengoa prest dago? Lan partekatua al da?

Lehenik eta behin, azpimarratu nahi dugu, mugimendu feministan urte luzez gabiltzala protokoloa lantzen, eta hainbat zehaztapen eta egokitzapen egin dizkiogula. Esate baterako, protokoloa transfeminista da, eta ez ditu soilik eraso matxistak biltzen; jarrera, eraso, gorroto edota ekintza arrazistak, lodi-fobo zein bestelako zapalduetako gorpuzten aurkakoak ere barne hartzen ditu. Hori kontuan hartuta, aurtengo protokoloan lehen aldiz, aintzat hartu ditugu lodi-fobiari lotutako zapalkuntzak. Bestalde, protokoloari dagokionez, indarkeria eta eraso matxistetan jartzen dugu arreta handiena, baina ahaztu gabe bestelako zapalkuntzak ere gauzatzen eta gorpuzten direla.

Aurtengo protokoloa dagoeneko prest dago. Horretarako, elkarlanean aritzen gara jaien antolaketan parte hartzen duten eragileekin; Jai Batzordearekin, Txosna Batzordearekin eta Kuadrilla Eguna antolatzen dutenekin, denon artean koordinatzen gara. Datoren asteetan, eragile horiekin buru-belarri ibiliko gara protokoloaren lanketan. Izan ere, nahiz eta gaur gaurkoz mugimendu feminista den protokoloa diseinatu, landu, moldatu eta batez ere, aplikatzearen arduradun nagusia, behar beharrezkoa da herri feministago bat eraikitzeke gainerako eragile eta, bereziki, herritarren inplikazioa.

Zenbateraino da garrantzitsua eragile ezberdinen artean egitea lanketa?

Aurretik aipatu dudan bezala, protokoloa jaien antolakuntzan aritzen garen eragileon artean lantzen da. Urte batzuetan, moldaketak egon dira, hainbat ekintza eta zailtasunengatik. Normalean, koordinazio mahai bat osatzen da Jai Batzorde, Kuadrilla Eguna, Txosna Batzorde eta mugimendu feministako protokolo arduradunekin. Gainera, Santakruz bezperako asteburuan formakuntza eskaintzen da indarkeria matxistetan sakontzeko eta txosna egingo duten Txandalariak formatzeko, hauek baitira protokoloa akti-

"Aurtengo protokoloa prest dago, xehetasun berrieekin"

ANDOINGO MUGIMENDU FEMINISTA ANDOAIN

Indarkeria eta eraso matxistetan jartzen da arreta handiena, baina, ahaztu gabe, "bestelako zapalkuntzak ere gauzatzen eta gorpuzten direla"



Txosnagunean sortzen diren erasoaren aurrean esku-hartzeko protokoloaren aurkezpena iaz. AIURRI

batzeko bide garrantzitsuenetako bat. Hala ere, uste dugu, eragileetatik harago joan behar dugula, horretarako, herri osoarekin aurretiazko lanketa egiteko formula bilatzen ari gara. Ez bakarrik jaien bueltan, baizik eta urte osoko ekintza txiki zein ez hain txikietan; adibidez; ekimen zehatzetan, hitzaldietan edota, lantegietan.

Beraz, bai, guztiz garrantzitsua eta ezinbestekoa da jaien bueltan gabiltzan eragile guztion arduraren erantzukizuna eta babesa. Izan

ere, jai herrikoi eta feministak nahi baditugu, guztiok jarri behar dugu gure alea.

Eta lanketa bezain garrantzitsua da haren zabalkundea, beharrezkoa baita gizarteari komunikatzea.

Bai, ez dugu protokoloa erasoaren aurka aktibatuko den bide gisa soilik ulertzen. Protokoloak erasoak eta beraz, erasotzaileak daudelako sortzen dira. Garrantzi berezia eman nahi diogu ere prebentzioaren atalari, eta elkarriketa honetaz baliatu nahi dut herritarrei arduraren eta eran-

tzukizuna eskatzeko, batez ere, gizon gisa dituzten pribilegio eta jarrerak berrikusteko. Horrez gain, konplize ez izatearen erantzukizuna hartzeko deia ere egiten dugu, lagunarteko ekintza, iruzkin edota baboseoa ez mozteko erasoaren parte izatea delako. Kasu honetan, protokoloa txosnagunean aplikatzen da, hortaz, gainerako espazioetara iristeko zailtasunak izan ditzakegu. Horregatik, gainerako espazioen arduradun direnei ere (adibidez, tabernetako langile zein buruei),

erantzukizun berezia eskatu nahi diegu eraso matxisten inguruan formatu daitezela.

Gai horren inguruan hausnartu ostean, aurtengo protokoloaren formakuntza herritar orori zabaltzeko momentu egokia iruditu zaigu. Batik bat, ahalik eta jende gehienak arduraren hartzeko, orain arte mugimendu feministak erantzukizun osoa bere gain hartu baitu, erasoaren kudeaketan, eta bereziki, erasoaren prebentzian. **Nola eramango da praktikara protokoloa eta zein kasutan eta noiz aktibatzen da?**

Protokoloa txosnagunean aplikatzen da, eta beraz, txosna da aktibatzekeko erreferentziatzeko gunea. Erasoren bat jasan edo ikusi duen edonor txosnako barrara hurbildu daiteke, eta bertan protokoloan formaturiko Txandalari Moreak egongo dira (zapi morea izango dute besoan identifikatzeko). Aldi berean, gauero bi protokolo arduradun egongo dira, Txandalari Moreak eraso baten berri izatean haiei komunikatu, erasoaren kudeatzeko arduraren hartuko dute, behar den uneetan erasoaren jasan duenarekin biltzeko, baina baita erasotzailearekin ere. Protokoloa txosna irekita dagoen momentu oro egongo da eskuragarri, eta kuadrilla egunean ere, egun osoan zehar aktibatzeke aukera egongo da. Jakin badakigu erasoak ez direla gauzez soilik ematen. Erasoaren gauzez izango balitz, edonor kontaktuan jarri daiteke email zein instagram bitartez mugimendu feministaren. Bestalde, protokoloaren aktibazioa txosnagunean txosnen irekierarekin batera gauzatzen da, modu egituratuaren.

Hamaika modu desberdinen inguruan hausnartu dugu urte hauetan guztietan (telefonoa, puntu konkretu bat izatea...) baina uste dugu ezin dela soilik mugimendu feministaren erantzukizuna izan horren kudeaketa. Baina horretarako, baliabide publikoetan inbertitu behar da. Izan ere, gu ez gara adituak, nahiz eta urte luzez aritu garen, eta bestetik, herriak protokoloan parte-hartzeko bide interesgarria Txandalariak inplikatzeko irudiritzen zitzaizgulako. Horrek hainbat gauza erraztuko lituzke, alde batetik, herritarrengana iristeko bidea, eta bestetik, herritarrek protokoloaren berri izan eta formatzeren beharra. Hori da gure helburua, arduraren



mugimendu feministarengan soilik ez erortzea, horregatik, egiten dugu txosna erreferentzia puntu izatearen hautua.

Puntu morea protokoloaren baitan jartzen da ala apartekoa da? Nola uztertzen dira?

Duela urte batzuk, egunean zeharreko informazio puntua jartzen zuen udalak, mugimendu feministak, aldiz, gauze ere eskaintzeaz ez ezik, puntuetan arreta formatua edukitzea ere eskatu zuen. Hori dela eta, azken urteetan, zerbitzu hori eskaintzen du, eta zehazki, erasoan aurrean arreta era zuzenean bideratzen duen zerbitzua da. Zerbitzu honek zenbaki propioa du, Udalak jaietako protokolo propio baitu. Bertan daudenak profesionalak dira, gu ere beraiekin harremanetan egoten gara, erasoak kudeatzeko baliabide guztiak eskura ez ditugunez, publikoak direnak ere baliatu behar ditugu.

Gainera, esan bezala, txosnagunera mugatzen gara –nahiz eta beste edozein espazioetan emandako erasoan berri izaten ere kudeatzen ditugun–. Hori da aktibaziorako bide zuzena, eta zerbitzu horrek gu iristen ez garen beste erasoengana iristeko balio dezake. Beraz, bi bideak elkar uztargarriak eta lagungarriak dira.

Zeintzu dira protokoloaren funtzio nagusiak?

Helburu nagusia Andoain eta jaiak espazio feminista, seguru eta aske bilatzeko bidean aurrerapausoak ematea da. Ez da soilik erasoan esku-hartzean oinarritzen, alde aurretik prebentzio lan bat egiten da. Gainera, erasotzaileak aurpeirik gabeko “enkapatxatu” eta diskurtso arrazistek elikatutako gizon kanpotar gisa irudikatzen dituzten honetan, gure inguruan dauden gizon zuri eta ezagunak interpelatzeko helburua ere badu. Aurrez aipatu bezala, norbere jarrerak eta ingurukoena birpentsatzeko.

Gainera, urteak daramatzagu mugimendu feministan autodefentsa transfeminista lantzen, eta protokoloaren helburuetako bat horretan trebatzea ere bada.

"FORMAKUNTZA SAIOA URIGAINEN IZANGO DA, LARUNBAT HONETAN, 11:00TAN HASITA"

Erasotzailearen iruditeria dugun modu berean, eraso jasan duenaren iruditeria ahul eta babesgabea ere barneratua dugulako. Dikotomia hori hautsi eta emakume* eta gorputz disidente ororen autodefentsa legitimatu eta aldarrikatzen dugu erresistentzia-ekintza gisa.

Protokoloa, halaber, eskura dauden baliabide publiko eta komunitarioen berri izatea ere bada; salaketa judiziala ez dela bide bakarra -eta askotan, ezta egokiena ere- barneratzea; zerbitzu guztien telefono guztiak eskuratu eta zerrendatzea, eskuorriak egitea, lege aldaketen berri izatea, herriko baliabideak ezagutzea eta beste herrietako mugimendu feministekin sare-tuta egotea.

Era berean, eszenatokia hartzen duten musika taldeen jarrera eta gorputzen inguruan hausnartzea; badira ere kontzertuetan lehen lerroan daudenak nortzuk diren ikusi eta hori haustera bultzatzea; norbere desirak eta plazerak zalantzan jartzea; herria aldarriz bete eta txosnaguneari onartuko ez diren jarrerak esplizitatzea; txosnan noizean behin kuña jartzea; eragile barrutan eman daitezkeen dinamika eta jarreraren azterketa egitea eta txosnan oinarritzko baliabideak (konpresak, klinexak, kargadoreak eta kondoiak) eskuragarri egotea.

Azken batean, hausnarketa ugari dira, etengabeko lana da, eta funtzioa bera da; erasorik gabeko espazio transfeminista, aske eta seguruak sustatzea.

Azken urteotan protokoloa aktibitatearen beharra izan da jaietan?

Azken bi urteetan bitan aktibatu da protokoloa jaietako dagokionez. Bata, eraso homofobo eta matxista batengatik, eta bestea, eraso arrazista gauzatu zelako. Ez dugu galdera hau morbotik irakurtzea nahi baina bai hausnarketa pare bat egin nahiko genituzkeela protokoloa aktibatzeak sortzen dituzten jarreraren inguruan. Lehenengo egoeran, txosnagunetik bi gizon kanporatu ziren, esanguratsua da nola une hauetan zenbait gizonen duten salbatzeko beharra, zenbat gizonen norbait jotzeko irrikaz eta desiraz baliatzen duten edozein “mobida”. Ze nekagarria protokolo arduradun ginenok bi gizon kudeatzetik lau kudeatzera pasatzea. Dena ez da jipoia eta hala izango balitz ere, agian hausnartu dezakezue guk ere baditugula ukabilak.



Txosna eremua. AIURRI

Bestetik, eta protokoloaren etengabeko berrikuspenaren beharra azpimarratuz, eraso arrazista gisa kudeatzeko hautua egin genuen. Honek, deserosotasunak eta desadostasunak sortu zituen. Ulertzen dugu eraso bat salatzen den momentuan, eta eraso egin duena ezaguna denean zaila egiten dela posizionatzea. Honen aurrean, ulertzen dugu egoera, baina, norbaitek burutu duen ekintza bat eraso arrazista gisa definitu eta interpelatzeak haserrea baino aldaketarako gogoia eman beharko lukeela uste dugu. Hori baita ekintza iraultzaile eta feministena, norbere jarrerak onartu eta aldatzea. Ez dugu punitibismoan sinesten, eta erreparazioa bide gisa dugu uneoro, baina horretarako, eraso burutu duenaren onarpena eta aldatzeko beharra ezinbestekoak dira.

Beraz, jaietan gozatzen egongo zareten gazte eta ez hain gazte guztiei erasoan aurrean guregan hurbiltzera gonbidatu nahi zaituztegu, erabili protokoloa, hurbildu eta egin galderak, beldurrik gabe. Ez da gutxiegi gertatu zaizuna eta ez da gehiegizkoa era publikoan edota norbaiti salatu nahi izatea; baboseoa, ukituak, iruzkinak eta begiradak ere erasoak dira eta bat erasotzen badute, gu denak izango gara alboan.

Bada egun, ordu, toki kritikorik Santakruzetan?

Seguruena toki kritikoenak etxeak dira, eta gu iristen ez garen toki horiek guztiak izango direla garbi dugu. Oso kontzientzia gara jaietan erasoak intentsifikatzen direla baina ezin dugu ahaztu jaietatik kanpo 365 eguneko eta 24 orduko protokoloak egon beharko lirakekeela, baude baliabideak hori martxan jartzeko.

Ez dugu egin estatistikarik toki, egun zein orduen inguruan, gehienak ez baitzaizkigulako iritsiko eta beste bide batzuk hartuko dituztelako. Horren aurrean, berriro diogu gurekin harremanetan jar daitekeela edonor edozein momentutan, jaiak pasa eta gero eta baita urte osoan zehar ere.

Protokoloaren ibilbidea zein izan da urteotan? Zenbaterainoko garrantzia izan du Andoaino Mugimendu Feministak protokoloa txertatzeko garaian?

Antolaketa ereduaren aldetik, gazteok mugimendu feministara iritsi aurretik, martxan zegoen jaietako protokoloa. Gure kasuan, duela lau zapabost urte hasi ginen hau errebisatzen eta lanketa sakonagoa egiten. Hasiera hasieratik, mugimendu feministak gainerako eragileekin batera protokoloa lantzeko beharra ikusi zuen, eta horretan jarraitzen dugu aurtengoan ere, eragileen arteko koordinazio mahaiak sortuz. Hala ere, mugimendu feministaren gain erortzen jarraitu du protokoloa egiteko eta aplikatzeko ardurak.

Protokoloaren edukari dagokionez, milaka buelta izan ditu protokoloak, eta batez ere, aktibatze moduak. Eztabaida kolektiboak izan dira gehienetan, formakuntzetatik baliatuta eta beste eragileekin elkarlanean. Erasoak tipifikatzeko orduan, moldaketak izan ditugu interseksionalitateetik ulertzen eta transfeminismoan sakontzen joan garen heinean, adibidez. Baina baita protokoloa aktibatze bide hoberena zein den zehazteko orduan ere. Bide polita eta oso aberasgarria izan da eta izango da etengabeko hausnarketa, buruhauste, akats, ikasketekin...

Erabaki-hartzeak ere eman dira ordutik. Pare bat ekarri ditugu ideia bat egiteko. Batetik, urtero jasotzen dugun formakuntzan hausnartutakoari esker, txosnatik Jagger edaria kentzearen erabakia hartu genuen, hau txosna batzordean helaraziz. Izan ere, edari hau nazien garaian erabiltzen zen pertsonak ezeztatze eta lagunak sortzen dituen edaria izanik, badaude oportunistak diren gizonak hori baliatzen. Noski, badakigu, honek ez duela arazo errotik konpontzen baina ez dugu sustatuko horretara eraman dezakeen ezer. Horrez gain, oholtzak ematen duen

boterearen inguruan ere hausnartu genuen, eta baita erasoren bat salatu nahiko balitz kontzertua gelditzearen inguruan ere, horretarako, eta jai batzordearekin batera, urtero musika talde zein soinu teknikariei protokoloaren zein eduki beharreko jarreraren inguruko nondik norakoak bidaltzen zaizkie. Beste erabakietako bat, hasiera hasieratik, txosna barruan protokoloarentzako soilik den material kutxa bat edukitzea izan da, eraso jasan duenarentzako produktu eta hainbat eskuorriekin.

Hausnarketa eta erabaki hauek ez ditugu mugimendu feministatik soilik hartu, eta ez dugu horretan erori nahi, horregatik, gonbidapen berezia egin nahi diegu protokolo transfeministaren inguruan interesa eta parte-hartzeko nahia duen edonori. Guk ateak irekita ditugu eta nahiz eta urte hauetan barne mailan sakontzen egotera bideratu ditugun indarrak, garbi dugu ez dugula gure gain erortzea nahi, saretuta egotearen garrantziari eusten diogu.

Jaiak iristeko egun gutxi falta denean zein hausnarketa egiten duzue?

Aurrez aipatu bezala, protokolo transfeminista den horretan lodifobia eta putofobia gehitu ditugu erasoan artean. Protokoloa beraz, eraso matxista, homofobo, bifobo, transfobo, lodifobo, putofobo, arrazista eta bestelakoetan aplikatzen da. Azken honekin, gainera, aurten denboraz justu ibili gara martxo indarrez etorri delako, baina hurrengo urterako antiarrazakerian lanketa berezia egitea aurreikusten dugu. Bai gure pribilegio zurien inguruan hausnartu, eta baita antiarrazistak diren ekintza konkretuei forma emateko. Bestetik, eragile guztien zein herritarren inplikazioa nola sustatu hausnartzen gabilta.

Horregatik, aurten, apirilaren 25ean, goizeko 11:00tan, indarkeria matxisten inguruko formakuntza herrira zabaltzeko erabakia hartu dugu. Urigain kultur etxean izango da. Beraz, gonbita luzatzen diogu jai eredu eta eremu aske, transfeminista eta seguruak nahi dituen edonori bertaratu eta gaian sakontzera. Protokoloak existituko ez diren gizarte eredu bat izatera bidean, ekintza eta autodefentsa transfeministan elkar babestu, saretu, zaindu eta ahalduntzen gabilta. Eta zuek?



Udal ordezkariak eta teknikariak uda honetako eskaintzaren aurkezpen-ekitaldian. AIURRI

Udako aisialdia, Andoainen

Ikasturtea amaitu eta berehala, aisialdia eta jarduera fisikoa uztartuko dituzte Andoainen. Gurasoentzat aski ezagunak diren egitasmoak bertan dira: Goazen Jolastera, Goizean Kirolean eta Leitzarari Abentura

Erredakzioa ANDOAIN

Uda iristearrekin batera, haur eta gazteei zuzendutako eskaintza zabala prestatu du Andoaingo Udalak. Hala, UDA 2026 izeneko kanpainaren baitan, aisialdia, kirola eta hezkuntza uztartzen dituzte parte-hartzaileen adin eta zaletasunetara egokituta. Hala, ikasturtea amaitu berrikan, bestelako hitzorduetan parte hartzeko aukera zabalduko zaie Andoaingo gaztetxoiei.

Goazen Jolastera

2018 eta 2023 bitartean jaiotako haurrei zuzendutako jarduerak da. 09:30etik 13:00etara, parte-hartzaileek jolasak eta ekintza ugari egingo dituzte. Ekainaren 22an hasi eta uztailaren 24ra bitarte, hiru txanda antolatuko dituzte. Informazio gehiago, Gazte Lokalean.

Leitzarari Abentura

2010 eta 2015 urteen artean jaiotako gazteentzat, naturarekin

harreman estua sustatzeko aukera bikaina da. Ekintzak astelehenetik ostiralera egingo dira, 09:30etik 13:00etara, eta bi txandatan banatuta egongo dira uztailaren. Informazio gehiago, Urigain etxean.

Goizean kirolean

2014 eta 2018 bitartean jaiotako gaztetxoiei zuzenduta, astebeteko txandak antolatuko dituzte. 09:30etik 13:00etara, jarduera fisikoa eta aisialdia uztartuko dituzte. Alluraldeko kideek beherapena izango dute. Informazio gehiago, Allurralde kiroldegian.

Igeriketa

Igeriketari arreta berezia ematen diote Andoainen, ikastaro

HAINBAT JARDUERA EKAINAREN 22AN HASIKO DIRA. IGERIKETA, ALDIZ, EKAINAREN 29AN

trinkoen bitartez. Bi adin-tarte aurrikusi dituzte: 2020-2022 bitartean jaiotakoak eta, 2019 baino lehen jaiotakoak. Bi txandatan egingo da. Lehena ekainaren 29an abiatuko da; bigarrena, uztailaren 13an. Informazio gehiago, Allurralde kiroldegian.

Tenisa

Azkenik, teniszaleek ere badute aukera trebatzeko, adinaren arabera egokitutako taldeekin eta ordutegiekin. Uztailaren 13tik 24ra, hori izango da aukera bakarra. Goizeko 11:00tan hitzordua izango dute 2014-2018 urteetan jaiotakoek. 12:00tan, berriz, 2010-2013 artean jaiotakoek. Informazio gehiago, Allurralde kiroldegian.

TENISEAN TREBATZEKO TXANDA BAKARRA IZANGO DA, UZTARILAREN 13TIK 24RA



Artola eta Pozas zinegotziak. UDALA

Urnietako eskaintza, prest

Udako aisialdia osatzeko eskaintza aurkeztu du Urnietako Udalak. Izena emateko epea zabalik dago apirilaren 30era bitarte. Aukera zabala dago txanda hartzeko garaian: Aurrez aurre, Bertan bulegoan eta Lekaio kultur etxean; Internet bidez, urnieta.eus webgunean klik eginez.

EGUZKITAN BLAI

2014-2022 urteen bitartean jaiotako haurrek har dezakete parte. Orduetgia: 10:00-13:00. Ekainaren 22tik uztailaren 24ra, 3 txandatan banatuko da eskaintza: ekainak 22-uztailak 3, uztailak 6-17 eta uztailak 20-24. Lehen bi kasuetan prezioa 66,80 eurokoa da. Azken txandakoa, aldiz, 33,40 euro.

KIROL UDALEKUAK

2014-2017 urteen bitartean jaiotako haurrek har dezakete parte. Orduetgia: 10:00- 13:00 (astean bi egunetan jarduera bereziak: 09:30-13:30).

Ekainaren 22tik uztailaren 24ra, 3 txandatan banatuko da eskaintza: ekainak 22-uztailak 3, uztailak 6-17 eta uztailak 20-24. Lehen bi kasuetan, kiroldegiko bazkideentzat prezioa 111,36 eurokoa da. Bazkide ez direnen kasuan, berriz, 133,63 euro. Hirugarren eta azken txandakoa, aldiz, 55,68 euro. Eta bazkide ez direnen kasuan, 66,82 euro.

2023KOEN ZAINITZA

2023an jaiotako haurrek parte har dezakete eta egitasmoa Egape ikastolako 2 urtekoen gelan izango da. Orduetgia: 09:00- 13:00. Sarrera eta irteera-ordutegian malgutasuna: 09:00-09:30 eta 12:30-13:00 artean. Ekainaren 22tik uztailaren 24ra, 3 txandatan banatuko da eskaintza: ekainak 22-uztailak 3, uztailak 6-17 eta uztailak 20-24. Lehen bi txandatan prezioa 98,08 eurokoa izango da. Hirugarrena, berriz, 49,04koa.



Urnietako
udala



Ana Valero Soto, Osakidetzako erizaina Andoaingo Osasun Etxean. AIURRI

Aurretiazko borondateen agiria bete daiteke Osakidetzan

ANA VALERO SOTO ANDOAINGO OSASUN ETXEKO LANGILEA
Aurretiazko Borondateen Dokumentua (ABD) jada egin liteke Andoaingo Osasun Etxean. Tramitea kudeatzeaz arduratzen den erizaina da Valero

Xabier Lasa ANDOAIN

Zer egin behar du ABDa egiteko interesa eduki dezakeen herritarrak?

Anbulatorioan nirekin hitzordua eskatu, lehenbiziko eta behin. Eskatzaileei argibide idatziak ematen dizkiet ABDaren edukien gainean, eta zenbait orientabi-

de ere ematen dizkiet prozedura aldetik. Zenbat txosten eskura jartzen dizkiet, eta bizpahiru astetako tartea ematen diet haiekin hausnar dezaten, eta berriro ere hitzordua jartzen dugu. Ordurako gauzak argi idatzita ekarri behar dituzte eskaerak, eta bestela ere, za-

lantzak argitzeko gaude. Behin ABDa idatzita, sinatu eta eskatzailearen historialean erantsiko da eta Osakidetzaren artxi-boan jasoko da. Tramitazio guztia konfidentzialtasunez egiten da.

Egun, nahiko atzerapenarekin gauzatzen ari dira eskaerak.

Andoaindik Tolosara bidaltzen dira, eta handik Gasteizera, Osakidetzara. Horrela, zenbait hilabete igaro ohi dira eskatzaileari etxera gutun zertifikatua iristen zaienerako. Egia esanda, nahiko berria da ABDa eskatzearena, eta gero eta zabalkunde handiagoa edukitzen ari da herritarren artean. Pentsatzen dut etorkizunean arintzen joango dela tramitazio administratibo guztia.

Noiztik dago irekita zerbitzu hori ambulatorioan?

Iaz ekin genion, eta taldeka hasi ginen. Nolanahi ere, ez da erraza taldeak sortzea, eta arrazoi batzuk zirela medio (parte-hartzaileen ordutegiak batzeko zailtasuna, erreparoa partekatze horren pertsonala den gaia...), batez ere hitzordu pertsonalak lotzen ari gara azken aldian. Asteartero, hiru hitzordu finkatzen ditugu.

Argi dago hazten ari dela eskaria. Gero eta interes handiagoa dago herritarren artean, izan ere, badago gogo bat zehazteko zer nahi den eta zer ez bizitzaren azken uneari begira. Eskaera hori poliki-poliki normaltzen joango dela iruditzen zait; goiz ala berandu, edozein mediku-kontsultaren pare amaituko du.

Zertarako egiten da ABDa, zehazki?

Eskaera-dokumentuan zehazten den bezala, askatasunez erabakitze gaitasuna daukagunean idatzi beharra dago eta, horren bitartez, sinatzaileak, bere balioak eta lehentasunak idatzi, eta horiek kontuan hartzea eskatzen du; batik bat, jakinaren gainean uzten du, idatzitz, baldin eta bere egoera fisiko edo mentala dela-eta galduko balu, zer nolako osasun-zaintza jaso nahi duen erabakitze gaitasuna.

Eskatzaileen agirian argi irakur daitekeen moduan, dokumentu horrek balioa dauka soilik bere egileak betiko galtzen duenean erabakitze gaitasuna. Bien bitartean, noiznahi alda dezake, erabat malguta den alde horretatik.

"GERO ETA INTERES HANDIAGO ANTZEMATEN DA HERRITARREN ARTEAN"

Eskaera-idatzi ofizial horrek, zer alderdi jasotzen ditu?

Batik bat ikuspegi mediko batetik planteatzen dizkio galderak eta erantzunak eskatzaileari: hala nola, zer den garrantzitsua berarentzat (bizi-kalitatea, autonomia pertsonala eduki, minik edo sufrimendurik ez izatea...), bizitza ez luzatzea eta tratamenduei uko egitea nahi al duen (egoerak deskribatzen zaizkio horretarako), mina eta sufrimendua arintzeko zainketa aringarriak, eutanasia, non jaso nahi duen arreta bizitzaren amaieran... Halaber, agirian jaso daitezke eskatzaileak gogokoak dituen beste hainbat ohar edo jarraibide, sendikoe edo ingurukoek kontuan har ditzaten. Oso irekia da agiria, alde horretatik.

Zein profileko eskatzaileak hurbiltzen dira zuen zerbitzura hitzordu eske?

50 urtetik gorako jendea da normalki. Asko eta asko, bikotearekin, lagunekin edo seme-alabekin etortzen dira.

Zenbaitzuk aitortzen dizute iraganean esperientzia mingarriak bizi izan dituztela familian, eta ez dituztela halako egoerak errepikatu nahi. Oroitzapen mikatz horrek mugiarazten die. Esate baterako, adineko jendeak adierazten dizu dokumentuari esker espero duela, etorkizunean, seme-alaben artean ez egotea eztabaidarik.

Oso gai delikatua da, egia esanda, tabu samarra izaten segitzen baitute autonomia galdu osteko zaintzak, bizitzaren azken unetan irudikatu behar horrek, heriotzak... Dokumentuak oso alderdi intimoak eta pertsonalak mugiarazten dizkizu barru-barruan, eta bada emozionalki gaizki etortzen zaigunik, nahiz eta argi eduki egin beharra daukala. Egokitu izan zait atzera egin duenik ere, utzi nizkion dokumentuen irakurketarekin oso gaizki pasatzen ari zela eta. Nolanahi ere, orokorrean, jendeak kontzientziatuta egiten du eskaera, bada-kielako premiazkoa den pausoa egiten ari dela.

"AURRETIAZKO BORONDATEEN AGIRIA BETETZEN DUENAK KONTZIENTZIATUTA EGITEN DU ESKAERA"



Ibilbidea osatu zuen helduen eta haurren taldea, Belkoain aldean. EUSKALDUNA MT

Giro ederreko ibilaldi neurtua

52. Andoain-Andoain Ibilaldi Neurtua hasi eta amaitu zen aurreko igandean. Partaidetza datuak ikusita, bistakoa da Kopako finalak eragina izan zuela. Hain zuzen, ibilbide motzak 108 parte-hartzaile batu zituen, luzeak 136, eta familia-girokoak, azkenik, 44

Erredakzioa ANDOAIN

Goizeko lehen orduan hasita, mendizaleak Ondarreta ikastetxeke jolastoki estalian ikus zitezkeen. Aukeran hiru ibilbide ziren:

- Familia-girokoa: Andoain eta Adunako lursailetan barrena ibili ostean, Belkoain gainetik (491 m.) igaroz, 10 kilometroko ibilbidea osatu zuten.
- Ibilaldi motza: Andoain, Zarateko Benta, Belkoain (491 m.) eta Andoain. 21 kilometroko luzera zuen ibilbide ertainak.
- Ibilbide luzea: Andoaindik abiatu eta Alkizara hurbildu ziren. Handik Erniora (1.062 m.), eta Zelatun eta Gazume (997 m.) igaro ostean, Zarateko Benta eta Belkoainen (491 m.) barrena igaro ziren, Andoainera iristeko. 42 kilometroko luzera, eta 2.000 metroko desnibela zuen guztira.



Hiru mendizale, Arantxa Urola antolatzailetako batekin, Zelatunen. EUSKALDUNA MT

www.aiurri.eus



AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

**Ibilaldi neurtua,
irudi bidez**



Ondarretara iritsitakoek pozarren ospatu zuten ibilaldia amaitu izana. AIURRI



Ibiltari taldea, Ondarretako helmugan. AIURRI



Edaria eta janaria parte-hartzaileentzat, iritsieran. AIURRI



Boluntario taldeari esker aurrera atera ohi da ibilaldi neurtua. AIURRI



Iturzaeta memoriala. AIURRI

Iturzaeta pala txapelketan jokatzeko izen-ematea, zabalik

Sorabillako XIV. Iturzaeta Memoriala maiatzetik aurrera jokatu da, ekainera bitarte. Izena eman daiteke jada, maiatzaren 5a bitarte (634 403 114 telefono-zenbakira deituta). Hiru mailatan jokatu da: emakumezkoak eta mutilak, txapelketa irekian; eta, azkenik, udalerr mailako mutilen artekoa. Partidak astebururo jokatu dira, ostirala barne.



Artxiboko irudia. AIURRI

XIV. Kontzejupeko esku-pilotako Txapelketa

Gazteleku pilota eskolak antolatuta, aurreko ostiralean amaitu zen aurtengo edizioan parte hartzeko epea. Txapelketan parte hartzeko, halabeharrez, bikoteko batek andoaindarra izan behar du. Partida guztiak Kontzejupean (udaletxeko arkupean) jokatu dira, aste barruan, eta pilota goxoarekin. Finala, ohi bezala, San Juan jaietan jokatu da.

Mondragon taldearen zelaian ariko da Euskalduna

Azken txanpan murgildu da Ohorezko Erregional maila eta, larunbat honetan, partida askoren emaitzei erreparatu behar ko zaio. Bereziki, jaitsiera postuetan dabiltzanen aldetik. Euskaldunak Mondragon taldearen aurka jokatu du. Sailkapenari begira, 5. postuan daude Debagoienakoak 47 punturekin. Baina, kasu, aurreko asteburuan Deusturen kantxan galdu zuten (3-2). Ea garaipena etxera ekartzeko aukera duten urdiñek.

SAILKAPENA, 30. JARDUNALDIA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

1	Real Union B	61
2	Anaitasuna	59
3	Oiartzun	53
5	Mondragon	47
12	Beti Gazte	33
13	Orioko	31
14	Euskalduna	27
15	Amaiak Bat	27
16	Mutriku	25
17	Hernani	23
18	Deustu	23



LEIZARAN

Federazio saria irabazi dute

Leizaran Kadete Neskak Urdina-La Salle Berrozpe eskubalo taldeak Federazio A Saria irabazi zuen, aurreko asteburuan. Finalean Ereintza Aguaplast gainditu zuen gol bateko aldearekin.

Gipuzkoako txapelkun izan ondoren, Andoingo taldeak lortu zuen lehiaketa horretarako pasea. Zortzi partidako lehen fase baten ondoren, bi talde onenek titulua izan zuten jokoan. Leizaranek lehiakortasunerako sendotasuna erakutsi zuen eta garaipena eskuratu zuen Ereintza Aguaplasten aurka (28-29). Titulua taldearen denboraldi bikaina baieztatza dator. Era berean, jokalariek eta talde teknikoak egindako lan handiari jarraipena ematen dio sariak.

Kopako partida Hernanin

Larunbat honetan, arratsaldeko 18:30ean hasita, Urnieta Artola Harategia taldeak Hernanin aurka jokatu du. Ez da partida erraza izango hernaniarrek denboraldi bikaina egin baitute.

Kadete mailako Urnieta Iñaki Mecanizados taldeak, bere aldetik, arratsaldeko 15:00tan jokatu du Leizaran Horiaren aurka, Allurralden.



AIURRI

Berria txapelketa

Finalera iritsi da txapelketa eta larunbat arratsaldean jakingo da zein den irabazlea. Aurreko asteburuan jokatu ziren finalaurrekoak eta bertatik irten ziren Galarretako finalistak: Ezkurra II-Goikoetxea VI eta Arluziaga-Azpiroz. Finalaren ateetan geratu dira Martixpe-Barrenetxea IV eta Segurola-Aldabe bikoteak.



ORIAMENDI

FINAL HANDIA

APIRILAK 25

LARUNBATA · 16:30

GALARRETA

JAI ALAI

berria

ERREMONTE TXAPELKETA 2026

1. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)

ALDABE · BARRENETXEA IV VS ANSA II · LARRAÑAGA

2. PARTIDA (BERRIA TXAPELKETAREN FINALA)

EZKURRA II · GOIKOETXEA VI VS ARLUZIAGA · AZPIROZ

3. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)

MARTIXPE · JUANENEA VS SEGUROLA · AIESTARAN VI

SARRERAK

Bap! taldearen agerpena, Txanpiren omenez

Txanpi, Lolillo, Lupax, Kristina... Andoaingo Gaztetxearen inguruko hainbat lagun gogoan hartu zituzten Andoaingo Gaztetxean, aurreko larunbatean. Nagusiki, 80ko eta 90eko hamarkadatan Gaztetxean aritu ziren taldeen bertsioak jo zituzten



Okene kantaria, Drake baxu-jotzailea, Mikel bateri-jotzailea eta Jomes gitarra, 1996ko garai haietan bezala. MUSIKAZUZENEAN

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko larunbatean, Andoaingo Gaztetxean, ospakizun polita bezain hunkigarria egin zuten Txanpi eta beste hainbat lagunen memoriaren alde. Zortzi talde igo ziren oholtzara, tartean, BAP! taldeko lagunak. Iaz, Suso gogoan hartzeko egin zuten lehen Pittitti Fest jaialdia Andoaingo Gaztetxean. Aurten errepikatu dute jaialdia, oraingoan Txanpi eta Gaztetxeko hurbileko lagun gehiago oroitzeko: Lolillo, Lupax, Kristina eta beste hainbat.

Gaualdian Andoaingo hainbat musikari zortzi talde ezberdinetan elkartu ziren, kasu gehienetan, 80 eta 90eko hamarkadatan Gaztetxean aritu ziren taldeen bertsioak jotzeko. Talde horietako bat BAP!eko lagunek osatu zuten. Zortzi kantu jo zituzten, Gaztetxea bete zuten zaletuen gozamenerako.

Jomes Oiartzun, Drake Olazabal, Mikel eta Okene Abrego berriz ere elkarrekin aritu ziren, 1996ko garaitan bezala. 30 urte eta gero, lagunartean aritu ziren, Gaztetxearen inguruan falta ziren lagunaren omenez.



Musikazale ugari elkartu zen Andoaingo Gaztetxean. MUSIKAZUZENEAN



Hainbat musika talde igo ziren Andoaingo Gaztetxeko oholtzara. MUSIKAZUZENEAN



AIURRI

Klarinetista gazteak

Astelehena ez ohikoa izan zen Udal Musika Eskolako klarinete-jotzaileentzat. Izan ere, jendaurreko emanaldia zuten. Klarinete Ensemble izena hartuta, ez ziren bakarrik aritu. Haiekin batera aritzeko gonbidatu zituzten oholtzara Tolosako, Zumaiako eta Errenteriako Ensembleak. Klarinetea izan zen, beraz, protagonista nagusia.



AIURRI

Kontzertu bikoitza, Basteron

Maila handiko bi abeslari aritu ziren kantari, aurreko asteburuan. Ianire Arantzabe da Esanezin taldeko kantaria. Hura izan zen oholtzara igotzen lehena. Pop eta rock kutsuetan sakonduz, doinu intimistak jo zituen ikuslegoaren aurrean. Segidan, Sara Azurza igo zen oholtzara. Bere izena du proposamen artistikoak eta pop eta soul doinuak jo zituen.



AIURRI



Martxoak 3 elkarteko Andoni Txasko eta Agustin Plaza izan dira aurtengo gonbidatuak. AIURRI

1936an bezala, antifaxistak

2026an, 1936an bezala, faxismoaren aurkako borroka zentzua baduela aldarrikatu zuten Oroitz, Andoainen eta Gasteizko Martxoak 3 elkarteetako kideek Miranda pasealekuan egin zuten ekitaldian

Xabier Lasa ANDOAIN

Urteak dira, *Goiztirian Arimaren garrasia* eskulturaren aurrean, 1936ko kolpe militarraz geroztik Andoainen erail eta zapaldu zituzten herritarren aldeko omenaldi-ekitaldia egiten dela. Herriko 25 fusilatu eta desagerrazien eta gainerako biktimak guztien aldeko lore-eskaintzarekin hasi zen ekitaldia. Jarraian, bertso-saioa eta ohorezko aureskua egin zuten. Segidan, "Oroituz, Andoainen" eta "Gasteizko Martxoak 3" elkarteetako kideek hartu zuten hitza.

Lurdes Arteaga Andoaingo elkarteko kideak adierazi zuen faxismoaren aurkako mezua ez genukeela iraganeko kontutzat hartu behar, inoiz baino indar handiagoa baitu: "1936ko uztailaren 18an faxismo krudela sufritzen hasi ginen Andoainen, Euskal Herrian eta estatuan, eta 40 urtez ondotoxoa ikusi genuen zein aurpegi zeukan. Bada, ez

dugu ahaztu behar aurpegi hori, iraganen landu dugun memoria bizi horrek laguntzen digulako egungo aktualitatearekin lotzen, eta laguntzen digula faxismoaren adierazpen modernoak identifikatzen. Izan, Gazan; izan, Iranen; izan, Libanon; eta izan beste hainbat lekuetan, hala nola Espainiako estatuan edo Euskal Herrian".

Martxoak 3 elkarteko Agustin Plaza eta Andoni Txasko izan dira aurtengo gonbidatuak. Espainian frankismoaren krimenei aplikatzen zaien inpunitatearen salaketa egin zuen Txaskok: "Iazko ekainean, Sanfermines 78 Gogoan eta Martxoak 3 elkar-teek, elkarlanean, aitormen eta erreparazio pertsonalerako ekimena burutu genuen, Estatuko Memoria Demokratikoaren Legeak uzten duen zirrikitua baliatuz. Egindako 39 eskaerak onartu dituzte. Gure biktimak askatasunen aldeko borrokala-

rien gisa agertzea jarri genuen helburutzat. Baina aitormen moral huts horretan geratu gabe, estatu mailako aitormen ofizial bat egiteko eskatzen diogu Espainiako Gobernuari. Aitor dezala gobernuak Iruñeko eta Gasteizko giza-sarraskietan izandako erantzukizuna".

Nazioartera begira jarri zen Txasko, eta hainbat adibide izendatu zituen: "Argentinan Videlaren diktadurako krimenengatik eta Britainia Handian Ulsterren (Ipar Irlanda) Igande Odoltsuan egindako krimenengatik egin dituzte aitortza ofizialak. Oraindik orain, Alemaniako gobernuak ere onartu du Gernikako bonbardaketan eduki zuen erantzukizuna. Espainiako estatuko gobernuak, baina, ez du halakorik egin nahi izan orain arte. Demokrazia baten izaera adierazten du horrek". Estatuan frankismoaren biktimak aitortzeko eta biktimarioak epaitzeko



Banda Errepublikanoa Sebastopoleko dantzariekin, emanaldiaren aurretik. AIURRI



Dantzarria eta txistulariak, Miranda pasealekuan. AIURRI



Bazkaria prestatu zuen Etxeberrietako lagun taldea, Kotoin. AIURRI

borondaterik ez dagoela adierazi zuen. "Inpunitatea sustraituta dago. Preskripzioaren kontzeptua aplikatzen dute, eta 1977ko Amnistia Legea darabilte horretarako. Egiazki, lege hori 'punto final' egiteko erabiltzen ari dira". Izen-abizenak jarri zizkion Txaskok estatuan sustraituta dagoen inpunitateari: "Martin Villa, Arias Navarro, Manuel Fraga, Borboiko Juan Carlos... ez lukeite demokratizatzen agertu behar historiako liburuetan, giza-sarraskien erantzule gisa baizik. Onartezina da beren titulu ofizialekin, dominekin eskulturekin... jarraitzea. Epaileen aurrean

agertu behar luke, epaituak izateko". Azkenik, oroimen historikoaren aldeko elkarte guztien batasuna eskatu zuen, "denen artean lortuko dugu frankismoak 1936an hasi eta trantsizioa amaitu arte eragin zituen biktimak guztientzako egia, justizia, aitormena eta ez erreplikatzeko bermeak".

Frankismoaren biktimak oroitzeke egunari jarraipena emateko, Kotoi elkarte bazkaria ospatu zuten hainbatek, Banda Errepublikanoak antolatuta. Etxeberrieta Jai Batzordeko kideek prestatu zuten bazkariarekin gozatu zuten han bildu zirenek.

AGENDA

ASTEAREN EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN "Orratz-begia"

1936ko kolpe militarren ondorioz ebakuatutako haurrak, aztergai. **Bastero Kulturgunea.**
Azken eguna: Apirilak 30.

ANDOAIN Erraldoiak

"Lebiton eta gure pertsonaiak". Erraldoi eta buruhandien 30 urteko ibilbidea, erakusketara emanda. **18:30, Bastero Kulturgunea.**
Maiatzak 14, osteguna.

AISIALDIA

URNIETA Udalekuak

Eguzkitan Blai eta bestelako jardueretan parte hartzeko epea zabalik dago. Xehetasun gehiago, 10. orrialdean.
Azken eguna: Apirilak 30.

ANDOAIN Udalekuak

Goazen Jolastera eta bestelako jardueretan parte hartzeko epea zabalik dago. Xehetasun gehiago, 10. orrialdean.
Izen-ematea: zabalik.

SARIKETA

URNIETA Literatur lehiaketa

"Antia" literatur lehiaketaren sari banaketa ekitaldia. 96 idazlan lehiatu, haurren mailan. 38. gazte mailakoak. **19:00, Sarobe.**
Apirilak 23, osteguna.

AURKEZPENA

URNIETA Liburu-aurkezpena

"Ulhaintsaren negarra" liburua. Bertan izango dira Jon Garmendia idazlea, Mainer Ziaurriz editorea eta Garbiñe Larrea aurkezlea. **19:00, Sarobe.**
Apirilak 23, osteguna.

SANTAKRUTZAK

ANDOAIN Herri danborrada

Maiatzaren 1ean aterako dira. Entseguak betiko tokian dira. **Entseguak: 20:00-21:00.**
Apirilak 27 eta 28.



Maite Guevara. GANSO

URNIETA "Ahora" clown antzerki-saioa, igandean

Maite Guevara aktorea igoko da oholtzara. Sinopsia: Martina hemen dago. Gai da erronka guztiak igarotzeko, arazo guztiak saihesteko, edozer gauzatan murgiltzeko. Baina dena ez da behar bezala gertatzen. Denak ez daude egon beharko luketen lekuan. **19:00, Sarobe antzokia. Prezioa: 7 euro. Apirilak 26, igandea.**

ANDOAIN Peñakoen danborrada

Maiatzaren 2an aterako dira. Entseguak betiko tokian dira. **Entseguak: 19:00-20:00.**
Apirilak 27 eta 28.

ANDOAIN Egitaraua

8-9. orrialdeetan Santakrutzetako buruzko informazioa. **Apirilak 30-maiatzak 3.**

DANTZA

URNIETA Urnieta Erromerian

Egape jaialdiaren XX. urteurrenean murgilduta dago. Hilaren 28ko entsegu bertan behera geratu da. Entseguak: **Apirilak 25: 10:00-12:00, Ikastola.**
Apirilak 30: 18:30, Ikastola.
Apirilak 25 eta 30.

MUSIKA

DONOSTIA Abesbatza

Udal Musika Eskolako helduen abesbatzaren emanaldia. **17:30, Zorroagako eliza.**
Apirilak 25, larunbata.

ANDOAIN Euskelelea

Familia osoa liluratu eta hunkituko duen ipuin musikatu: Juan Krutz Igerabide, Irrimarra, Euskal Barrok Ensemble eta Udal Musika Eskola. **12:00, Bastero Kulturgunea.**
Apirilak 26, igandea.

DOKUMENTALAK

ANDOAIN Axeri Dantza

"Axeri Dantza. herri baten erritua". **18:30, Bastero Kulturgunea.**
Maiatzak 5, asteartea.

ODOL-EMAILEAK

URNIETA Hitzordua

Odola emateko hitzordua. **16:30, Gaztelekua.**
Maiatzak 7, osteguna.

DEIALDIA

ANDOAIN Sanjuanak

Txupinazioa nork bota erabakitzeko. **Azken eguna:**
Apirilak 24, ostirala.

ZINEMA



ANDOAIN


BASTERO

Laponia

Lar., 25. 19:30.
Igandea, 26. 19:30.
Astelehena, 27.
17:00, 19:30.

Super Mario Galaxi: La Pelicula

Lar., 25. Ig., 26.
17:00.



SINOPSIA

Laponia

Zuzendaria: David Serrano. **Gidoia:** Cristina Clemente, Marc Angelet. **Aktoreak:** Natalia Verbeke, Julian Lopez, Angela Cervantes, Vebjorn Enger, Blanca Ramirez, Adrian Gamiz. **Hizkuntza:** Gaztelaniaz. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 89 m.

Gabonak Laponian

Nuria (Angela Cervantes) Laponian bizi da, Olavi senarrarekin (Vebjorn Enger) eta alabarekin batera. Hainbat urtez Gabonak elkarrekin ospatu gabe egon ondoren, bere ahizpa Monica (Natalia Verbeke), senarra (Julian Lopez) eta bien semea Gabonak Romanieviko bere etxean ospatzera gonbidatzea erabaki dute. Plana ezin hobeto aurkezten da, harik eta Nuriaren alabak lehengusu txikiari kontatzen dion arte gorri jantzitako eta bizar zuridun gizon hori ez dela existitzen; Papa Noel gurasoek seme-alabak manipulatzeko asmatu duten pertsonaia bat besterik ez dela. Eguberri bereziena zirudiena, bat-batean, arriben, koinatuen eta lehengusuen arteko gudu bihurtzen da.

